


ZORNOTZA. Riki Lopezen saioagaz abiatuko dabe 'Espuelie', bihar



EGUNKARIA
Ramon Barea aktore bilbotarra izango da Zornotza aretoan bere lana aurkezten azkena.

'Espuelie' hartuko dau Zornotza aretoak egunotan

Formatu txikiko hiru ikuskizun batu dabez, denporaldia agurtzeko

Aitziber Basauri

Formatu txikiko hiru ikuskizunekaz agurtuko dau denporaldia Zornotza aretoak. *El hombre más feliz del mundo* eskainiko dau Riki Lopezek, Itziar Lazkanok *Dulce la puta* antzeztuko dau eta Ramon Bareak *Sobre los perjuicios del tabaco* jarriko dau taula ganean. Hirurek *Espuelie* osatuko dabe.

Aretoko arduradun Luisja Ugartek azaldu dauenez, egitaraua «modu berezian» zarratu gura izan dabe. «Ganera, formatu txikiko ikuskizunak ekarteko gogoagaz gengoan, beraz, asmo biak lotu doguz», gaineratu dau berak. Hiru ordu laurdeneko iraupena daukien

hiru bakarrizketak osatzen dabe *Espuelie*. «Bata musikala eta beste biak antzerti-bakarrizketak». Guztiak 22:00etan hasiko dira.

'El hombre más feliz del mundo' ikuskizunagaz abiatuko dabe

Bihar abiatuko dau Zornotza aretoak *Espuelie*. Riki Lopezek, Mallorkako kantautore komikoak, *El hombre más feliz del mundo* ikuskizuna eskainiko dau. Gitarra lagun dauela, hainbat egoera eroango dauz taula ganera; eta ikusleak horreekaz identifiketako bape ahaleginik ez dau egin beharko. *Dulce la puta* antzeztuko dau Itziar Lazkanok, barikuan. Aktore barri onenarendako *Ertzilla*

Saria eta aktore onenarendako *Aktoreen Elkartasunaren Saria* jaso ebazan berak, igaz. Orain 13 bat urte be Zornotzan izan zan bera, eta oraingoan, komedia bizi eta malekoniatsu baten protagonista lez jatorkigu.

Ramon Bareak agurtuko dau *Espuelie*, zapatuan. *Sobre los perjuicios del tabaco*, Anton Chejov-ek idatzitako bakarrizketa trinko bezain mamitsua eskainiko dau berak.

Modu berezian girotuko dabe, ganera, aretoa ikuskizunotarako; «Kafe-antzerki giroa sortu gura dogu», dino Ugartek. Ikuskizun bakotxerako sarrerea 6 eurokoa da. Hirurak ikusteko bono berezia be hartu leiteke 12 euroan.

ELORRIO. Herri Eskoleak, barriz, Kirol Haurtzaindegia hartuko dau

Gazteendako kirol ekintzak gertau dabez garagarrikerako

A. B.

Garagarrikerako kirola egiteko aukerea eskainiko deusie gazteei, Elorrioren. Izan be, euren dako kirol ekintzak eratuko ditu Udalak. Adinka bananduta txanda bi gertau ditue. Halan, garagarrikeraren 1etik 12ra artean, zortzi urtetik 12 urtera artekoen aukerea izango da. Beste alde bateatik, garagarrikeraren 15etik 30era artean, 12 urtetik 16ra arteko

gazteei zuzendutako ekintzak antolatuko ditue.

Hainbat kirol praktiketako aukerea izango dabe: saskibaloia, eskubaloia, boleibola, tenisa, futbola, irrisketa, badminton, arku tiroketea, hockeya, rugbya... Antolatzaileek azaldu dabenez, ganera, egunero kirol edo joku desbardin bat izango dabe, guztiek. Ekintzak herriko plazan eta kiroldegian egingo ditue, astelehen, asteazken eta

barikuetan —10:00etatik 11:30era—. Ekimenen parte hartu gura dabenez, 15 euro ordaindu behar ditue, eta, hilaren 17ra artean emon leikie izena.

Beste alde batetik, Kirol Haurtzaindegia be eratu dau Udalak, garagarrikerako. Herri Eskolan, kirolak, jokuak, tailerrak... eratuko dabez lau urtetik zazpi urtera arteko umeendako. Hil horren 1etik 12ra arte edegiko dabe haurtzaindegia, 10:00etatik 13:00era. Parte hartzeko, barriz, 50 euro ordaindu behar dira. Izena emoteko epea hilaren 17an itxiko dabe.

ABADIÑO. Aparkalekuak atonduko dabez

Urkiola ganeko gasolindegia bota barri dabe, bost urtean zarratuta egon ostean

A. B.

Bota dabe Urkiola ganeko gasolindegia. Geratutako orubean, barriz, autoendako eta autobusendako aparkalekua egokituko dabe. Hori-ze azaldu dau Jabier Uriarte Abadiñoko alkateak.

Orain bost urte zarratu eben gasolindegia, isurketa baten ondorioz sortutako lis-karrak tarteko zirala. Gasolindegia ageriko azpiegitura da bota dabena. Halan dabe, erragai ontziak ez dabez garbituko San Antonioak

igaro artean. Ganera, ontziok ez dabez kenduko, Uriartek adierazo dauenez, dana dala, segurtasun neurri lez areagaz edota aparragaz beteko dabez erregai ontziak.

Gasolindegia hartu izan dauen eremua asfaltatuko dabe, aparkalekuak atontzeko. Era berean, errekearen beste alde be garbituko dabe. «Errekearen beste alde be igaroteko egurrezko zubia be ipiniko dogu», dino alkateak. Beharron kostua, momentuan, Udalak hartuko dau bere gain.

DURANGO. Urte bian emongo dabe zerbitzua

KZgunean tutore moduan jarduteko lanpostu bi bete behar dabez

A. B.

Durangon zabalduko daben KZgunean tutore lez jarduteko lanpostu bi betetako lehiaketa publikoa zabaldu dabe. Monago Torren edegi gura dabe Jaurlaritzak bultzatutako KZgunea; eta irailerako gertu egotea itxaroten dabe udal arduradunek.

Behar horretan jardun gura dabenez hilaren 14ra artean —13:30ak arte— aurkeztu leikiez curriculumak, udaletxeko erregistro orokorrean. Momentuz, urte bian eskainiko dabe zerbitzua.

Bete beharreko baldintzen artean, windows, ofimatika eta internet informatika programen ganeko ikastaroak egin izana eskatzen dabe, eta erabiltzaile mailako informatikari eta internetari buruzko ezagutzea. Euske-rea eta gaztelerea jakitea zein jentearreko beharretan esperientzia eukitea be derrigorrezkoa da. Azkenik, hezkuntza mailan taldeakaz jarduten eta ekimenak antolatzen esperientzia eukitea be eskatzen dabe.

Eskatzaileei eranskin lez emondako informazioan zehaztuko ahal izango dabez bestelako gaitasunak.

LABURAREN

ERMUA

Hizkuntza Eskubideen Behatokia aurkeztuko dabe gaur, liburutegian

Hizkuntza Eskubideen Behatokiaren aurkezpene egingo dabe, gaur, udal liburutegian, 17:00etan. Ermuko Euskal Herrian Euskeraz taldeak antolatutako ekitaldian, behatokia zer dan, zelan funtzionatzen dauen eta zeintzuk helburukaz sortu zan azalduko dabe. EHEk jakinarazo dauenez, Ermuko Udalak salaketa bi jaso dauz dagoeneko, hizkuntza eskubideen hainbat urraketa egin dirala salatuta.

AGENDEA

DURANGO

Erakusketea: Raimundo Bikandi eskultore durangarraren beharrak kusi leitekez, Arte eta Historia Museon.
Erakusketea: Euskal Astea dala eta, oraindino zabalik dagoz Indalezio Ojangurenen *Euskal Jaiak eta ospakizunak* erakusketea eta Industria eta Kultur Ondarearen eskutik eratutako *Meategiak Euskal Herrian*. Ezkurdiko erakustaretoan dagoz, hilaren 14ra arte

ZORNOTZA

Lehiaketea: Karmenatarako kartel lehiaketarako beharrak aurkezteko epea bagilaren 14ean itxiko dabe.
Erakusketea: Enrike Renteria 2002 aire zabaleko pintura lehiaketan egindako beharrak Zornotza aretoan. 17a arte.